

# **Eskubaloi Kirol Teknikari Ikastaroa (Erdi Mailako Haiserako Zikloa) 2022-23**



Ikastaro hau **araubide bereziko kirol ikasketen barne dago**. Ikasketa horiek hezkuntza sisteman sartuta daude. Beraz, balio akademikoa dute. Bi mailatan egituratzen dira: erdi maila eta goi maila. Saskibaloi Kirol Teknikariaren titulua erdi mailakoa da eta bi ziklo ditu: hasierako zikloa eta amaierako zikloa.

***Ikastaro honen bidez erdi mailako irakaskuntzak hasten dira, Eskubaloi Kirol Teknikariaren titulua lortzeko asmoz.***

Bloke espezifikoak egiteko, Nafarroako Kirolaren Eskolak Nafarroako Eskubaloi Federazioaren laguntza du.

## **Sarbidea:**

### **Betebehar orokorrak:**

Izangaiek betebehar hauetariko bat frogatu beharko dute:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo horren baliokidea izatea ondorio akademikoetarako.
- Titulurik izan ezean, erdi-mailara sartzeko proba. Proba hau egiteko, gutxienez 17 urte bete behar dira proba egiten den urte naturalean.
- Berriazko sarbide-baldintzak betetzea

### **Berariazko baldintzak:**

- Federazio-lehiaketako edozein kategoriatan (infantil-absolutua) gutxienez denboraldi batez lehiatu izanaren kirol-merezimendua egiaztatzea. Kirol-merezimendua egiaztatzen duen ziurtagiria Espainiako Eskubaloi Federazioak emango du, eta Nafarroako Eskubaloi Federazioaren bidez eskatuko du.

### **Formakuntza-plana**

#### **Bloke komuna:**

<b>MODULUAK</b>	<b>ORDUAK</b>
	<b>60</b>
Kirol jarreraren oinarriak	20
Lehen laguntza	30
Kirol aktibitate egokitua eta desgaitasuna	5
Kirol antolakuntza	5

#### **Bloke espezifiko:**

<b>MÓDULOS</b>	<b>ORDUAK</b>
	<b>100</b>
Jokoaren oinarrizko oinarria	50
Eskubaloiaren irakaskuntza hastapenean	30
Oinarrizko jarduerak eta ekitaldiak antolatzea	20
Prestakuntza praktikoa	150

## ***Ikastaroaren garapena***

- Ikastaroaren aurkezpena: **2022ko azaroaren 4a**

### ***Bloke komuna:***

- Datak: 2022ko azaroaren 5etik 2022ko abenduaren 25era
  - Aurrez aurreko azterketa: 2023ko urtarrilaren 13a (arrunta) eta otsailaren 9a (ezohikoa)
- Modalitatea: ez-presentziala (gela birtuala)

### ***Bloke espezifikoa:***

- Datak: 2023ko urtarrilaren 16tik 2023ko martxoaren 25era (prestakuntza praktikoaren modulua kanpo)
- Aurrez aurreko azterketak: apirilaren 23an, 30ean eta maiatzaren 7an (arrunta) eta 2023ko ekainaren 10ean (ezohikoa).
- Modalitatea: aurrez aurrekoa.
- Saio presentzialak: oro har, larunbatetan eta igandeetan, eta % 80ko bertaratze-betebeharra.
- Praktiketako modulua (150 ordu): 2023-24 denboraldian egin beharrekoa.

## ***Onartua izateko prozedura***

### ***Aurretiko izen-ematea***

Epea: 2022ko irailaren 21etik urriaren 5era

Ikastaroan aurrez izena emateko, izangaiek **eskabide-orria** bete eta NaKirolEko idazkaritzan aurkeztu beharko dute, edo [formacion@fundacionmiguelindurain.com](mailto:formacion@fundacionmiguelindurain.com) helbide elektronikoaren bidez eta **50€ ordaindu** beharko dituzte, matrikulazio-kuotatik deskontatuta izango direla.

Ordainketa kontu honetan egin beharko da:  
ES 33 2100 3693 23 2210035448 (Caixabank)  
Kontzeptua: CIGM Eskubaloia eta ikaslearen izen-abizenak

Ordainagiria ENaDxTko-NaKirole Idazkaritzan aurkeztuko da

Ikaslea onartzen denean, zenbateko hori matrikularen zenbatekotik kenduko zaio.

Dena delako kasuan prestakuntza jasotzeko onartzen ez diren izangaiek aurreinskripzioaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea izango dute. Aurrez izena emateko kuota ordaindu, onartu eta norberaren erabakiz matrikulatzen ez diren izangaiei ez zaie itzuliko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

### ***Matrikulatzeko data:***

Aurreinskripzioan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, ikastaroan matrikulatzeko, izangaiek eskabide-ordria bete eta dokumentazio osagarriarekin batera ENaDxTko idazkaritzan edo helbide elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute:

[formacion@fundacionmiguelindurain.com](mailto:formacion@fundacionmiguelindurain.com)

Epea: urriaren 10etik urriaren 20ra

### ***Matrikulatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:***

- Izena emateko eskabidea: kirolaren Nafarroako Eskolako Idazkaritzan aurkeztu beharko da (Kirolaren Ikasketa, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa). Zangoza kalea, 34 - Larrabide estadioa). Beste lege-prozedura batzuen bidez ere izapidetu ahal izango da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua, edo sartzeko baldintza orokorretan agertzen den beste egoeraren bat.
- Kirol-merezimenduen ziurtagiria.
- NANaren/Pasaportearen/AIZren fotokopia
- Hala badagokio:
  - Desgaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa
  - Goi-mailako/errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
  - Diplomaren, baliozkotzearen edo korrespondentzien homologazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.

## ***Matrikulazio kuota:***

Matrikulazio kuota: 350 €

Kuota inskripzioaren kontu-zenbakian sartu beharko da, gainerako dokumentazioarekin batera.

Kontzeptua: CIGM Eskubaloia eta ikaslearen izen-abizenak

## ***Erreferentziak legeria:***

- 1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24koa, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena.
- 248/2011 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitatean araubide bereziko kirol irakaskuntzen antolamendua eta garapena arautzen dituena.
- 900/2021 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Eskubaloiko kirol-teknikariaren titulua ezarri eta haren oinarrizko curriculumak eta sartzeko baldintzak finkatzen dituena.
- ECI/494/2005 Agindua, otsailaren 23koa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren zuzeneko kudeaketaren lurralde-eremurako, eskubaloiko kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluei dagozkien curriculumak, probak eta sarrera-baldintzak ezartzen dituena.
- 356/2021 Ebazpena, abuztuaren 27koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiarena, Nafarroako Kirol Eskolari eskubaloiko kirol-irakaskuntzak emateko baimena ematen diona.

## ***Informazioa /Izena aurretik emateko epea:***

### **Nafarroako Kirol Eskola (NakiroIE)**

Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa (Larrabide estadioa)

Zangoza K. 34.

31005 IRUÑA

Tfnoak.: 848 431585

E-mail: [formacion@fundacionmiguelindurain.com](mailto:formacion@fundacionmiguelindurain.com)